

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	FITXATEGIEN KUDEAKETA (zeharkakoa)	Iraupena	60
Kodea	MF0978_2		
Lanbide-arloa	ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA		
Lanbide-eremua	Informazioaren eta komunikazioaren kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Jarduera administratiboak bezeroekiko harremanetan	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Harrera- eta komunikazio-teknikak.	Iraupena	90
	Bezeroarentzako arreta merkataritza-prozesuan		40
	Merkataritza-prozesuaren kudeaketa administratiboa		80
	Merkataritza-kudeaketako aplikazio informatikoak		40
	Datuen grabazioa. (zeharkakoa)		90
	Atzerriko hizkuntza profesionala bezeroekiko harremanetako jarduera administratiboetan		90
	Sistema eragilea, informazioa bilatzea: Internet, intraneta eta posta elektronikoa		30
	Testu-tratamenduetarako aplikazio informatikoak		30
	Kalkulu-orrien aplikazio informatikoak		50
	Datu-base erlazioaletarako aplikazio informatikoak		50
	Aurkezpenetarako aplikazio informatikoak: informazio-grafikoak		30
	Bezeroekiko harrerako eta harremanetako jarduera administratiboetako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak.		120

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: EUSKARRI KONBENTZIONALEKO ETA INFORMATIKOKO ARTXIBOA KUDEATZEA UC0978_2

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA
Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Fitxategi, ekipo informatiko, sistema eragile, sare, elementu eta fitxategi-dukiontzien sistemaren ekipamenduaren osagaiak identifikatzea.

EI1.1 Sarean dagoen sistema baten oinarriko elementuak, hardwarea eta softwarea identifikatzea, eta haien ezaugarriak, funtzioak eta instalazio-morroiak azaltzea.

EI1.2 Sarean dagoen sistema batean jarduteko prozedura orokorrak deskribatzea.

EI1.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, erabiltzailearen oinarriko funtzioak zuzenean sisteman exekutatzeko: konexioa/deskonexioa, biltegiatze-espazioa, periferikoen erabilera, beste erabiltzaile batzuekin komunikatzea, beste sistema edo sare batzuekiko konexioa.

EI1.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, ekipo informatikoen funtzionamendu-probak egitea, eta komunikazio-portuen konexioak badabiltzan ikustea.

EI1.5 Sarean dagoen sistema oso baten kasu praktiko batean, sareko sistema eragileari eta instalatutako softwareari buruzko dokumentuak, eskuliburuak edo laguntza-fitxategiak eskura izanik, hau egitea:

- Sistema aztertuz ekipoak, haien funtzioak, lanpostuetako sistema eragilea eta sareko sistema eragilea identifikatzea.
- Kudeaketako edo bulegoko elementu eta artxibo-dokumentuen edukiontzia identifikatzea.
- Lanpostuetako sistema eragileen oinarriko funtzioak ondo erabiltzea.
- Sareko sistema eragileak ematen duen informazio-segurtasun eta -konfidentzialtasunaren eskema azaltzea, susebakiaren programa eta birusen kontrakoa identifikatuz.
- Sare-ingurunean aritzeko oinarriko komandoak zein diren eta zer funtzio duten azaltzea.
- Sare-ingurunean aritzeko oinarriko komandoak eta haien funtzioak erabiltzea.

Sare-ingurunean aldagai oinarrikoak azaltzea, identifikatuz zein diren konfigurazioko fitxategi garrantzitsuenak, zer funtzio betetzen duten eta zer eduki duten.

- A2: Erakundeetan normalean erabiltzen diren sistema eragileen eta artxibo-sistemen ezaugarriak erabiltzea, egitura antolatu eta artxiboaren helburuetarako baliagarri bat sortuz eta mantenduz eta hura optimizatzea lortuz.
- EI2.1 Instalaturako sistema eragileen prestazioak identifikatzea, eta haren ezaugarriak eta oinarriko funtzioak azaltzea.
- EI2.2 Sistema optimizatzeko tresnak bereiztea, eta bakoitzaren funtzioak azaltzea.
- EI2.3 Informazioa erregistratzeko eta artxibatzeke euskarri informatikoak (disko finkoa, disketeak, CD-Ra, USBa edo beste batzuk) bakoitzaren ezaugarrien arabera bereiztea, eta tratatu eta banatu beharreko informazio-bolumenaren arabera erabiltzea.
- EI2.4 Informazioa eta dokumentu jakin batzuk antolatzea eta sistemaren parametro batzuk konfiguratzeko eskatzen duten kasu praktiko ondo zehaztu batzuk oinarri harturik:
- Sistemako objektuen bistak eta sistema eragilearekin lan egiteko modua konfiguratzeko behar diren funtzioak erabiltzea sistema eragilean.
 - Artxiboak edo karpetak sortzea, jasotako argibideen arabera.
 - Karpeta edo artxiboak kopiatzea edo lekualdatzea, hori ahalik eta denbora gutxienean egiteko behar diren funtzioak erabiliz.
 - Artxiboak edo karpetak izendatzea edo berrizendatzea, argibideen arabera.
 - Maiz erabili behar diren artxibo edo karpententzat lasterbideak sortzea, jasotako argibideen arabera.
 - Sortutako egituren segurtasun-kopiak egitea.
- EI2.5 Kasu praktiko ondo zehaztu batean, sistemaren tresna egokiak exekutatzeko eta tresna horiekin lortutako emaitzak azaltzea.
- A3: Informazio publikoa eta pribatua erregistratzeko eta artxibatzeke teknikak aplikatzea, paperezko dokumentazioaren sarbidea, segurtasuna eta konfidentzialtasuna errazteko.
- EI3.1 Informazioa antolatzearen xedea eta zer helburu lortu nahi diren deskribatzea.
- EI3.2 Artxibatzeke eta erregistratzeko euskarri ohikoak identifikatzea, biltegitatu beharreko informazioaren ezaugarrien arabera.
- EI3.3 Erakunde publiko edo pribatu batean informazioa antolatzeke aplikatu daitezkeen teknikak azaltzea.
- EI3.4 Erakundeetako antolaketa-, sailkapen- eta erregistro-sistema ohikoak bereiztea.
- EI3.5 Dokumentu tipo behar bezala zehaztuz eta erregistratu eta artxibatu beharreko informazioaz osatutako kasu praktiko batean:
- Zehaztea zein den sailkapen-, erregistro- eta banaketa-sistema egokiena dokumentu horietarako.
 - Artxibatzeke eta erregistratzeko euskarri egokienak zehaztea.
 - Informazioa eta dokumentazioa kontsultatzeko eta kontserbatzeke prozedurak zehaztea.
- A4: Informazioaren osotasuna, segurtasuna, erabilgarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen duten prozedurak gauzatzea.
- EI4.1 Enpresek eta erakunde publiko eta pribatuek datuen babesaren eta dokumentuen kontserbazioaren inguruan bete behar duten araudiaren oinarriko alderdiak identifikatzea.
- EI4.2 Informazioa babesteko, haren segurtasuna bermatzeko eta eskuratzeko mailak deskribatzea.
- EI4.3 Eskura dauden segurtasun-, babes-, konfidentzialtasun- eta murrizketa-sistemak aplikatzea.
- Aplikazio batean.
 - Sistema eragiletik.
 - Hardwaretik.
- EI4.4 Informazio konfidentzialera sartzeko eta kontsultatzeko prozeduran akatsak detektatzea.
- EI4.5 Aplikazio bat erabiltzen den kasu praktiko ondo zehaztu batean:
- Fitxategien segurtasun-kopiak egitea.
 - Fitxategiei pasahitzak jartzea.
 - Sarrera-atributuak zehaztea.
 - Fitxategien eta direktorioen babesak ezartzea.
 - Akatsak azaltzea eta beste aukera batzuk proposatzea.
- A5: Datu-baseen aplikazio informatikoen oinarriko prestazioak eta morroiak erabiltzea informazioa lortzeko eta aurkezteko, kontsulta, txosten eta beste objektu pertsonalizatu batzuk sortuz, proposatutako beharren arabera.
- EI5.1 Taula-motak eta haien arteko erlazioak identifikatzea jasotako datuen arabera.
- EI5.2 Kontsulta-mota desberdinak identifikatzea, bakoitzak zer ezaugarri dituen eta zertarako diren azalduz.
- EI5.3 Adibide praktikoak oinarri hartuz, txosten bat osa dezaketen objektuak identifikatzea.
- EI5.4 Kasu praktiko batzuk oinarri hartuz, eta datu-baseak kudeatzeko sistema baten aplikazioaren prestazioak eta morroiak erabiliz:
- Beharrezko diren taulak sortzea.
 - Formularioak sortzea eskura dauden morroiak erabiliz, eta zehaztea zein diren informazioa duten fitxategien eremuak.
 - Jatorrizko informazioa taula egokietan erregistratzea, eta egiaztatzea bat datozela informazio biltegitatua eta erreala.
 - Behar diren datuak inportatzea proposatutako aplikazioetatik: testu-prozesadorea, kalkulu-orria edo beste batzuk.
 - Behar den informaziorako kontsulta-mota egokiena zein den zehaztea.
 - Kontsultak sortzea eskura dauden morroiak erabiliz, eta zehaztea zein diren informazioa duten fitxategien eremuak.
 - Kontsultak datu-basean gordetzea eta izendatzea, jasotako argibideen arabera.
 - Informazioa behar denean, ahal bada, erabilgarri dauden kontsultak erabiltzea informazio hori lortzeko.

- Kontsultak inprimatzea eta aukerak konfiguratzeko, proposatutako ekonomia-arauak eta ingurumena babestekoak kontuan hartuz.

EI5.5 Datu-base bateko informazioa aurkeztea eskatzen duten kasu praktikoak oinarri hartuz:

- Eskatutako informazioa duten taulen eta/edo kontsulten eremuak identifikatzea.
- Txostenak eta grafikoak sortzea eskura dauden morroiak, zehaztuz nola multzokatzen diren datuak, eta zein diren formatu edo estilo egokiak.
- Txostenak erraz identifikatzeko moduko izenekin biltegitratzea, gero berreskuratu ahal izateko.
- Eskatutako txostenak edo informazioa eskatutako epean aurkeztea proposatutako aplikazioekin: testu-prozesadorea, kalkulu-orrria edo beste batzuk; eta, hala dagokionean, informazioa konbinatzea edo datuak esportatzea.
- Txostenak inprimatzea eta aukerak konfiguratzeko, proposatutako ekonomia-arauak eta ingurumena babestekoak kontuan hartuz.

EI5.6 Datu-baseak kudeatzeko sistemaren segurtasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen duten prozedurak aplikatzea.

Edukiak

1. Artxibo publiko eta pribatuen kudeaketa

- Dokumentuak artxibatze teknikak aplikatzea.
 - Saillatzeko eta ordenatzeko sistemak.
 - Xedea eta helburuak.
 - Artxiboen aurkibideak: eguneratzea.
 - Laguntzako eskuliburuen aplikazioak.
 - Hobekuntzak, antolakuntza-arazoak detektatzen direnean.
- Erregistratzeko eta, ondoren, artxibatze prozedura:
 - Euskarriak, altzariak, tresnak, artxibatze elementuak eta edukiontzia.
 - Artxibo dokumentala digitalizatzea, kopiazea eta bi euskarrietako informazioa erkatzea.
- Artxibatutako informazioa eskuratzeko, bilatzeko, kontsultatzeko, berreskuratzeko, eguneratzeko, kontserbatzeko eta zaintzeko prozedurak.
- Sistema eragileen eta artxibo-sistemen funtzioak eta ezaugarriak:
 - Objektuak konfiguratzeko sistema eragileetan. Erabiltzeko modua.
 - Fitxategiak, karpetak, azpikarpetak eta beste batzuk sortzea/ izena ematea, kopiazea eta ezabatzea.
- Sarbide publiko eta pribatuak fitxategi konbentzionaletan eta informatikoetan babesteko teknikak:
 - Babes-mailak: zehaztea.
 - Pasahitzak eta sarrera-atributuak zehaztea.
 - Informazioa sartzeko edo kontsulta egiteko baimenak; prozeduran akatsak hautematea.
- Informazioaren segurtasun- eta konfidentzialtasun-prozedurak aplikatzea:
 - Datuak babesteko eta dokumentazioa kontserbatzeko indarrean den araudia.
 - Segurtasun-kopia.

2. Artxibo elektronikoko sistema baten oinarriko optimizazioa:

- Ekipo informatikoak: martxan jartzea, mantentze-lanak egitea eta aldi behin aztertzea, ez dadin gorabeherarik gertatu funtzionamenduan.
 - Hardwareko elementuak: Prozesatzeko eta biltegitratzeko unitate zentrala, ekipo periferikoak, sare lokalen osagai fisikoak, konexioen ikuskapena.
 - Software-elementuak: instalatzea eta desinstalatzea, programak, aplikazio eguneratuak eta morroiak.
 - Erreproduktzio-ekipoak.
- Erabiltzaile bakarreko, erabiltzaile anitzeko eta sarean jarritako sistema eragileen optimizazioa:
 - Oinarriko komandoak eta funtzioak.
 - Sistema eragilearen oinarriko tresnak.
- Sistema eragileak sare lokaletan: sareko sistema baten oinarriko konfigurazioa, eguneratzea eta baliabideak partekatzeko ekintzak.
- Sistema eragilearen segurtasun- eta konfidentzialtasun-neurriak aplikatzea: babes-programak (birusen kontrakoa, swebakia, spamaren kontrakoa, beste batzuk).
- Fitxategietako informazioa kontserbatzeko eta osorik gordetzeko neurriak. Egile-eskubideak babestea.
- Datuak babesteari eta konfidentzialtasun elektronikoi buruz indarrean dauden arauak.

3. Informazioaren oinarriko kudeaketa datu-baseak kudeatzeko sistemetan.

- Datu-baseak: Motak eta ezaugarriak. Egitura. Funtzioak. Morroiak. antolakuntza.
- Informazioaren mantentze-lanak datu-baseen aplikazioetan: sartzeko, ordenatzea, informazioa sartzeko eta datuak eguneratzeko formularioetarako morroiak.

- Informazioa bilatzea datu-baseen aplikazioetan: Iragazkiak. Kotsultak. Kotsultetarako morroiak eta beste prestazio batzuk.
- Informazioa aurkeztea datu-baseen aplikazioetan: Txostenak. Txostenak egiteko morroiak.
- Beste aplikazio batzuekin erlazioak.
- Indarrean diren segurtasun- eta konfidentzialtasun-arauak aplikatzea datuak erabiltzean.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Jarduera administratiboak bezeroekiko harremanetan